

Susta dezagun BERDINTASUNA

Jostailuak aukeratzeko gomendio orokorrak:

- Umeak eskatzen duten guztiari ezin diogu baietzik esan, beraz, aztertu bere eskaerak modu kritiko eta koherente batean.

- Jostailu batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat direneko ideia isladatzen dutenak baztertu. Bultzatu joku libre eta espontaneoak.

- Liburu eta ipuinak aukeratzeko momentuan, neska-mutilak modu parekidean irudikatzen dituztenak aukeratu. Gauza bera bideo-jokuekin.

- Ez erori estereotipoetan! Pertsonen aniztasuna erakusten duten jostailuak edo jokoak hautatu.

- Kontuan hartu umearen gaitasun pertsonalak, eta haiek garatzeko moduko jokoak eta jostailuak aukeratu. Baztertu rolak eta jarrera pasiboak sustatzen dituztenak.

- Joku bortitz eta sexistak sahiestu eta hartu arazoak modu eraikitzaile, baketsu eta sortzailean konpontzera bideratzen dutenak.

- Jostailuen koloreei erreparatzerakoan ez jarraitu ohiturei. Saiatu eta ez aukeratu kolorea dela eta, neska edo mutilei zuzenduta dauden jostailuak.

- Neska-mutilak elkarrengana hurbiltzen dituzten joku eta jostailuak sustatu.

- Aurreiritzietatik aldentzen diren jostailuak hautatu, baita adin bakoitzari egokituak eta seguruak direnak eta ingurumena errespetatzen dutenak ere.



OÑATIKO UDALA
Berdintasuna Saila

